

Instrukzioa-organoarentzat:

PROPOSAMEN TEKNIKOA PROIEKTUAK EGUNERATZEKO

Kontziliaziorako diagnostiko bat eta ekintza-plan bat egiteko ezarritako balorazio-irizpideei lotutako proposamena, kontziliazio-proiektuak eguneratzeko, baldin eta aurreko proiektuaren ekintza-plana gauzatzeko aurreikusitako gehieneko epea igaro bada.

***Aldez aurreko abisuak:**

- Dokumentu honetan horretarako berariaz ezarritako aukietan emandako informazioa baino ez da erabiliko kontziliazioaren arloko diagnostikoa eta ekintza-plana egiteko proiektuaren balorazio teknika egiteko. Ez dira baloratuko erantsitako beste dokumentu batzuetan ematen diren datuak.
- Laukiek 50 lerroko gehieneko muga dute.
- Laguntza eskatzen duen entitatearentzat proiektua prestatu duen aholkularitza-entitateak proiektu teknika digitalki sinatu beharko du.

KONTZILIAZIORAKO DIAGNOSTIKOA ETA EKINTZA-PLANA EGITEKO HAUTATUTAKO AHOHKULARITZA-ENTITATEAREN DATUAK:

- Izena:
- IFZa/NANa:
- Proiektua sinatzen duen pertsona baimendua:

BALORAZIO-IRIZPIDEAK

Balorazio Batzordeak irizpide hauen arabera baloratuko du proiektua, atal bakoitzari emandako puntuazioaren arabera:

A) Entitate eskatzaileak kontziliazioarekin duen harremana eta konpromisoa, eta proiektua hasteko arrazoia (5 puntu gehienez)

A.1. Entitateak edo pertsona autonomo kontratatzaileak kontziliazioaren arloan izandako ibilbidearen laburpena, arlo horren gaineko interesa, esperientzia eta ibilbidea adierazten dituenak. (0,75 puntu gehienez).

A.2. Eskatzaileak proiektua aurrera eramateko duen jarrera eta motibazioa. Proiektua abian jartzeko arrazoi zehatzak. (0,75 puntu gehienez)

A.3. Diagnostikoa eta plana egiteak eragin dezakeen barne- eta kanpo-inpaktuaren aurreikuspena, genero-inpaktuari arreta berezia eskainiz ikuspegi intersektzionaletik. (2 puntu gehienez).

A.4. Entitateak edo mikroenpresak proiektuarekiko konpromiso publikoa izatea. Eskatzaileak proiektua gauzatzeko asmoa daukala azaldu die plantillako langileei. (1,5 puntu gehienez)

B) Kontziliazioari buruzko prestakuntza diagnostikoaren fasean. Diagnostikoa egiten duen bitartean, aholkularitza-entitateak prestakuntza espezifikoa emango du kontziliazio ardurakideari eta zuzendaritzarako eta plantillarako kontziliazio-neurriei buruz (5 puntu gehienez)

B.1. Aurreikusitako prestakuntza-planaren azalpena (helburuak, datak, hartzaileak). (puntu 1 gehienez)

B.2. Prestakuntza horretan zuzendaritzari eta langileei helaraziko zaizkien kontziliazio-ardurakidearen arloko ideia nagusiak. (puntu 1 gehienez)

B.3. Entitateari edo mikroenpresari prestakuntza eskainiko zaion moduaren azalpen arrazoitua: formatua (presentziala/online), metodologia (elkarrizketak, world kafea, prestakuntza-tailerra, hitzaldia, bideoak), aurreikusitako saioen kopurua eta egingo diren prestakuntza-taldeen kopurua. (puntu 1 gehienez)

B.4. Kontziliazio erantzukideari buruzko prestakuntzako saio presentzialak sartzeari entitateko gerentziarentzat eta giza baliabideen arduradunentzat, gutxienez 2 ordukoak. (puntu 1 gehienez)

B.5. Kontziliazio ardurakideari buruzko prestakuntza-saioak sartzeari plantillarentzat, gutxienez 2 ordukoak. (0,5 puntu gehienez)

B.6. Kontziliazio ardurakideari eta kontziliazio-neurriei buruzko aurkezpen bat egitea (ppt, bideoa edo antzekoa), langile guztiei bidaltzeko . (0,5 puntu gehienez)

C) Proposatutako lana entitate eskatzailearen ezaugarri eta beharretara egokitzea (12,5 puntu gehienez)

C.1. Proiektuaren laburpen orokorra. Honako hauek zehaztu behar dira: diagnostikoa eta kontziliazio-plana egiteko proiektua osatzen duten faseak, fase bakoitzeko mugarrak, haietako bakoitzean egin nahi diren lan-saioen kopurua eta mota, eta egikaritzeko denborak. Proiektuaren bi osagaiak (diagnostikoa eta plana) nola uztartzen diren zehaztu behar da. (2,5 puntu gehienez).

C.2. Entitate kontratatzailearentzat proposatutako proiektu motaren azalpen arrazoitua. Lan-proposamena entitatearen ezaugarrietara (tamaina, sektorea, plantillaren profila, marra gorriak, zuzendaritzaren beharrak, lanpostu motak, ekoizpen-erritmoak, egungo erronkak, kontziliazioarekin lotutako zailtasunak, lan-giroa...) eta plantillara (profila, adinaren eta sexuaren arabera, esperientzia, lanpostu motak...) egokitzen delako justifikazioa (5 puntu gehienez)

C.3. Proiektuaren dinamizazioa: talde eragilea. Proiektuaren motor izango den taldearen azalpena. Proiektuaren fase bakoitzean aurreikusitako osaera eta funtzioak. Zuzendaritzaren, ordezkaritza sindikalaren eta plantillaren presentzia barne hartzea baloratuko da, baita emakumeen eta gizonen presentzia orekatua ere. (2,5 puntu gehienez).

C.4. Proiektuan ariko diren eragileen eta horretarako erabiliko diren formulen azalpena, proiektuaren fase bakoitzean. (1,25 puntu gehienez).

C.5. Proiektua entitatearen politiketan integratzeko formulak (1,25 puntu gehienez).

D) Diagnostikoa (10 puntu gehienez)

D.1. Diagnostikoarekin lortu beharreko helburuak (1,5 puntu gehienez)

D.2. Diagnostikoan aztertuko diren esparruak/alderdiak. Agindu honen 4.4 oinarrian zehaztutako guztiak sartzea balioetsiko da. (2,5 puntu gehienez)

D.3. Entitatearen diagnostikoa egiteko behar den informazioa lortzeko eta egiaztatzeko aurreikusitako metodologia. Entitateari eskatuko zaion informazioa eta hori antolatzeke erabiliko diren tresnak. (2 puntu gehienez)

D.4. Parte hartzeko dinamikak sartzeari diagnostikoan, plantillaren beharrei buruzko informazioa lortzeko. (puntu 1 gehienez)

D.5. Plantillako kideek beren beharrak zein diren komunikatzeko parte har dezaten laguntzeko tresnak aplikatzea. (2 puntu gehienez).

- Kontziliazio-beharrei buruzko online-galdetegi bat emango zaie langile guztiei (0,5 puntu)
- Diagnostikoa egiten den bitartean, parte hartzeko gune irekiak eskainiko dira (0,5 puntu)
- Plantilla osoari irekitako talde-dinamikak antolatuko dira, informazio kualitatiboa biltzeko. Horietan, emakumeen eta gizonen parte-hartzea bermatuko da — betiere biak plantillan badaude —, eta haien ordezkaritza orekatua sustatuko da. (puntu 1). Talde-dinamikak lanpostu-mota desberdinetako ordezkarien kopuru jakin batera mugatzen badira, informazio kualitatiboa biltzeko, bi sexuen parte-hartzea bermatuz, atal honetan 0,5 puntu emango dira.

D.6. Diagnostikoaren emaitzak plantillari jakinarazteko moduaren azalpena. (puntu 1 gehienez)

E) Kontziliaziorako ekintza-plana egitea (10 puntu gehienez)

E.1. Plana egiteko erabiliko den metodologia. Nola hautatu erronkak eta beharrak, nola ezarri helburuak, nola zehaztu eta lehenetsi haiek lortzeko ekintza-neurriak. (2,5 puntu gehienez)

E.2. Planean sartuko diren helburuak eta neurriak zehazteko, hautatzeko eta lehenesteko proposatutako irizpideak eta eragileak. Langileek helburuak eta neurriak hautatzean eta lehentasuna ematean duten parte-hartzea baloratuko da. (2,5 puntu gehienez)

E.3. Plana sindikatuen ordezkaritzarekin eta plantillarekin alderatzeko formulak eta uneak egotea. (2,5 puntu gehienez).

Aukerak:

- Talde eragilean bakarrik kontrastatzea: 0,5 puntu
- Talde eragilearekin + plantillako ordezkaritza sindikalarekin kontrastatzea: puntu 1
- Talde eragilearekin + ordezkaritza sindikalarekin + plantillarekin kontrastatzea (ekarpen zuzenak egiteko aukerarekin): 2,5 puntu

E.4. Planaren iraupena. Egutegi-proposamenaren justifikazioa. (2,5 puntu gehienez).

F) Prestakuntza-planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko neurriak (7,5 puntu gehienez)

F.1. Planeko neurriak ezarriko direla eta haien jarraipena egingo dela bermatuko duen kontrol-organo bat egon dadin planteatzea. Entitatearen kudeaketa-organoetan sartzea balioetsiko da. (2,5 puntu gehienez)

F.2. Planaren jarraipenerako formulak. Neurrien aplikazioaren jarraipena egiteko eta planeko helburuak ebaluatzeke eta berraztertzeke entitateari emango zaizkion tresnak. Sar litezkeen adierazle moten proposamena. (2,5 puntu gehienez)

F.3. Entitateko eragileei planaren berri emateko metodologia. Planaren berri barnean (plantilla) zein kanpoan (bezeroak, web-orria...) zabaltzea baloratuko da. (2,5 puntu gehienez)

G) Aurreko deialdietan diruz lagundutako kontziliazio-plan bat gauzatu izana (10 puntu)

G.1. Planaren inplementazioaren laburpena, esperientzia eta ibilbidea, planaren bidez gauzatu ahal izan diren neurri berriak zehaztuz eta, hala badagokio, planaren zer alderdi ezin izan diren gauzatu justifikatuz. (3 puntu)

G.2. Planaren neurrien jarraipena egitea, helburuak, adierazleak eta kontrol-organoak ebaluatzeke eta berrikustarako formulak eta tresnak adieraztea. (2 puntu)

G.3. Egungo egoeraren diagnostikoa. Enpresaren egoeraren laburpena, kontziliazio-plana ezarri aurreko egoerarekin alderatuta. (2 puntu)

G.4. Planaren garapenean plantillak parte hartzea (Kontziliazio-planaren ezarpenaren ondorioz ezarri diren inkestak, partaidetza-espazioak eta komunikazio-estrategiak egitearen laburpena, baita arlo horretan emandako kontziliazio erantzukideko prestakuntza ere). (3 puntu)

H) Antzinasunaren arabera, planak eguneratzeko behararen justifikazioa (10 puntu)

H.1. Duela urtebete baino gutxiagoko indarraldia duten planak. Plana egokitzea justifikatzen duten ezaugarriak eta beharrei dagokienez enpresan izan diren aldaketen azalpen zehatza. Plana eguneratzea proposatzen den erakundearen ezaugarrien arabera zehaztea. (5 puntu)

H.2. Duela hiru urte baino gutxiago indarraldia amaitu zaien planak. Plana egokitzea justifikatzen duten ezaugarriak eta beharrei dagokienez enpresan izan diren aldaketen azalpen zehatza. Plana eguneratzea proposatzen den erakundearen ezaugarrien arabera zehaztea. (7 puntu)

H.3. Duela hiru urte baino gehiago indarraldia amaitu zaien planak. Plana egokitzea justifikatzen duten ezaugarriak eta beharrei dagokienez enpresan izan diren aldaketen azalpen zehatza. Plana eguneratzea proposatzen den erakundearen ezaugarrien arabera zehaztea. (10 puntu)

I) Erakundeak edo mikroenpresak kontziliazio erantzukidearen arloan hartutako konpromiso publikoaren justifikazioa (10 puntu)

I.1. Enpresa kontziliazio erantzukidearen alde modu publikoan egiten duten sareen parte da, eta, horrela, kontziliazioaren onurak zabaltzen ditu, jardunbide egokiak partekatzeko, sinergiak sortzeko edo kontziliazioaren arloko lankidetzaproiektuak garatzeko aukera ematen duten lankidetzaproiektu publiko zein pribatuen bidez. (2 puntu)

I.2. Enpresa Kontzilia 30 proiektuaren parte izan zen, edo aktiboki parte hartzen du Kontzilia Komunitatean, eta bere kongresu eta jardunaldietara joaten da kontziliazio erantzukidea publikoki bultzatzen lagunduz. (4 puntu)

I.3. Enpresak aktiboki zabaltzen ditu kontziliazioaren onurak, enpresaren barruan zein kanpoan, eta, horrela, egindako ekintzen eta erakundeak kontziliazioarekin duen konpromisoaren kanpoalderako komunikazio-politika garatzen du, sentsibilizatzeko edo gizarte-kontzientzia sortzeko balio duena. (4 puntu)

J) Kontziliazioaren integrazio-mailak enpresaren kudeaketan (elkarren artean metatu daitezkeen 20 puntu)

J.1. Enpresak konpromisoa hartzen du kontziliazioaren kudeaketaren inguruko aitorpenen batera aurkezteko. (3 puntu)

J.2. Plana eguneratzean, aurreko urteetan definitutako eta abian jarritako ekintzak zehazten dira, eta aurreko planaren autoebaluazioan oinarritutako hobekuntza-ziklo bat garatzen da. (2 puntu)

J.3. Kontziliazio-plana eguneratzeak enpresa-estrategiarekin integratzea aurreikusten du, eskaintzen dituen produktu eta zerbitzu motak, erakundeko pertsonengan eta bezeroengan duen eragina eta enpresaren gizarte-konpromisoan duen eragina kontuan hartzen dira. Gainera, kontziliazio-neurriek prozesuak eguneratzeari eta berrikuntzari dagokienez izan ditzaketen hobekuntzak ulertzen ditu, eta lortutako emaitzak neurtzen laguntzen duten adierazleak ezartzen ditu. (5 puntu)

J.4. Eguneratze-planean, gutxienez 2 urtez garatu beharreko praktikak sartzen dira, kontziliazioaren kudeaketa enpresa-estrategiarekin erlazionatzen dutenak, erakundearen erabaki estrategikoek pertsonengan eta horien kontziliazioan duten eragina aurreikusiz. Planak erakundearen errealitatea, jarduera-sektorea eta plantillaren profila hartzen ditu kontuan neurri egokituak ezartzeko. (5 puntu)

J.5. Eguneratze-planak kontziliazioaren kudeaketa enpresa-estrategiarekin erlazionatzeaz gain, haren erabakiek eta ekintzek pertsonengan duten eragina aurreikusten du. Horrez gain, helburu argiak eta adierazleak ezartzen ditu, horien analisia eta emaitzen neurketa egutegian jartzen ditu, eta emaitzen barne-komunikaziorako neurriak ezartzen ditu. (5 puntu)

*Balorazioa errazteko eta aukera-berdintasuna eta objektibotasuna bermatzeko, Balorazio Batzordeak eskala bat erabiliko du proiektua gauzatzeko proposamen teknikoan aurkezten diren irizpideetako bakoitzari dagokion puntuazioa mailakatzeko. Eskalaren oinarria da puntuazio-tarte bakoitza 3 mailatan zatitzea. Hala: irizpidea aipatzea, bestelako azalpenik eman gabe, gehienez 0,5ekin puntuatuko da 0-2 urkiletan, eta 1 punturekin gainerakoetan; irizpidea azaltzea urkilaren tarteko puntuazioarekin puntuatuko da; eta irizpidea entitatearen ezaugarrietara eta beharretara nola egokitzen den arrazoituta, justifikatuta eta egokituta azaltzea urkilaren gehieneko puntuazioarekin puntuatuko da.

Firma:

